


Euskal AEko eraikuntzaren kostuek % 0,2ko beherakada izan dute 2020ko ekainean, aurreko hilabetearekin alderatuta

2020ko ekaina 2019ko ekainarekin alderatuta, kostuek % 0,6ko igoera izan dute

Euskal Autonomia Erkidegoko Eraikuntzaren Kostuen Indizeak % 0,2ko beherakada izan du 2020ko ekainean, aurreko hilabetearekin alderatuta, eta urtetik urterako datuei dagokienez, berriz, indizeak % 0,6ko igoera izan du, Eustatek emandako datuen arabera.

Aurreko hilabetearekin alderatuta, lehengaien kostuek % 0,3ko beherakada izan zuten, eta eskulanaren kostuak, berriz, ez ziren aldatu (% 0,0).



Ekainean, eraikuntzaren azpisektoreak % 0,3ko beherakada izan du hilabetetik hilabetera lehengaien kostuan; obra zibilaren azpisektoreak, berriz, % 0,1eko beherakada izan du. Urtetik urterako bilakaeran, bi azpisektore horiek desberdinak izan dira. Izan ere, eraikuntzako lehengaien kostuek % 0,6ko igoera izan dute, eta obra zibileko kostuek, berriz, % 1,1eko beherakada.

Sektorean kontsumitu diren lehengaien prezioen artean 2020ko ekainean –2019ko ekainarekin alderatuta– igoerarik handienak izan dituztenak *Mineral ez-metalikoen*

sektorekoak (% 2,7ko igoera), *Material elektrikoaren* sektorekoak (% 1,6) eta *Kautxu eta plastikoaren* sektorekoak (% 1,0) izan dira. Aitzitik, lehengaien prezioen beherakadak honako sektore hauetan gertatu dira. *Petrolioaren finketa* (% 25,0ko beherakada), *Energia elektrikoa eta gasa* (% 7,6ko beherakada) eta *Makineria* (% 3,8ko beherakada).

EUSKAL AEKO ERAIKUNTZAKO KOSTUEN INDIZEA. ALDAKUNTZA TASAK (p). 2020ko Ekaina

	INDIZEA	ALDEAREN %	
		m/m-1	m/m-12
GUZTIRA	106,0	-0,2	0,6
Eraikinak	106,1	-0,2	0,9
Obra zibila	105,3	-0,1	-0,4
LEHENGAI	105,3	-0,3	0,3
Eraikinak	105,5	-0,3	0,6
Obra zibila	104,4	-0,1	-1,1
LAN-ESKUA	108,2	0,0	1,8

Oinarria 2015=100

(p) behin-behinekoa

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren kostuen indizea

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62